

## Gari Urangaren peña

Garigool taldea sortu dute ▶ 6



# Emakumeek aldarrikapenez eta ospakizunez bete zuten eguna

**MARTXA ▶** Brasilen hasi den Martxarekin bat egin du hemen sortu duten plataformak

**SAIOAK ▶** Datozen egunetan ere afariak, hitzaldiak, bideoak eta solasaldiak izango dira ▶ 2-3



Abaltzisketako emakumeak Larraitzeko jatetxe batean elkartu ziren bere eguna bazkari batekin ospatzeko. NOELIA LATABURU

**TOLOSA ▶**

## Aalborg-eko konpromiso guztiak onartu dira

Garapen jasagarria defendatzen EAEko lehen udala da ▶ 4

**LEITZA ▶**

## Sendabelar ikastaroa ari dira egiten

Laura Gurbindok erremedioak erakusten ditu ▶ 7

**LEITZA ▶**

## Korrika Ttikia bihar egingen dute Erletan

Ikasleak petoak egiten aritu dira asteen zehar ▶ 7

**IBARRA ▶**

## Emitza ona aerobik maratoian ▶ 6

**TOLOSA ▶**

## Benito Lertxundik disko berria grabatuko du etzi Leidor zineman emango duen kontzertuan

30 kanturen bertsoekin osatuko du eta udazkenerako kaleratuko dute; sarrerak salgai daude Leidorren bertan ▶ 5



Benito Lertxundi. HITZA

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA ▶

# Emakume adina aldarrikapen

Eskualdeko hainbat herritan Emakumearen Nazioarteko Egunaren aldeko ospakizunak antolatu zituzten atzo; datozen egunetan ere afariak, hitzaldiak, bideo emanaldiak eta solasaldiak izango dira



Julia Gallego —ezkerretik hasita bigarrena— emandako azalpenak jarraitu zituzten xake erakustaldira joandakoek. I. GARCIA



Alegiako emakumeak, bularreko minbiziaren hitzaldian. N. L.



Abaltzisketarrak bapo-bapo jan zuten Ñañarri jatetxean. N. L.

ten. Hamabost bat lagun bildu ziren eta Julia Gallego xake jokariak kirol honen inguruan zenbait aipamen eman zituen: mugimenduak, jokatzeko erak. Julia Gallego ere HITZAREKIN aritu zen solasean xakearen munduan emakumeak izan duen eta gaur egun duen lekuaz. «Oso gaztetan hasi nintzen jokatzen xakean eta hamahiru urterekin gizonetako helduei irabazi egiten nien. 70. hamar-kada zen eta oso zaila egiten zitzaien nire aurka galtzea, haurra eta gainera emakumezkoa nintzelako», azaldu zuen Gallegok.

Xakelari irundarrak oso maila altua lortu zuen gaztetan eta biziki jaso zuen genero-diskriminazioa: «Gogoratzen naiz nola txapelketetan mutilak beraien artean lagundu egiten ziren niri irabazteko. Gainera, Valentzian jokatuak txapelketa batean beraien artean adostu zuten, nire kontra galtzen zuenak dutxa hotza jasoko zuten zigor modura». Batez ere kirol intelektuala izaki, gizonetako oso zaila egiten zitzaien emakume baten aurrean galtzea. Egun, zerbait aldatu bada ere, oraindik diskriminazioak daude kirol honetan. «Orain 2 edo hiru urte Espainiako Federazioak xakelari gazteei onenei emandako klase batzuetan emakumezkoak eta gizonetakoak talde ezberdinetan banatu zituzten. Gizonetako irakasle tituludunak jarri zizkieten, hau da, emakumezko baina hobeeak», kexu da Gallego. «Zeharkako diskriminazioak ere badaude. Lehengoan Arrasateko Xake Klubean jokatu nuen eta zaharberrituta dituzten komunetan ez dago tazarik, hau da, tente egon behar da eta beraz gizonetakoak bakarrik pentsatuta daude».

Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean bi erakusketa inauguratu zituzten atzo. Astelehena arte izango dira ikusgai. Hori-tako bat Zizurkilgo eskulan taldeko kideek egindakoekin osatzen da. Egurra, metala eta kristala landu eta margotu dituzte taldekoek. Bestean, izena anonimo mantentzea nahi duen emakume artista baten koadroak ikusi daitezke. *Negarrrak min* izeneko erakusketak emakumeen sentimenduen inguruko margolanak biltzen ditu.

Abaltzisketan eta Ugarten

IMANOL GARCIA  
NOELIA LATABURU

Erakusketak, bazkari eta afariak, hitzaldiak... hainbat ekitaldi aitzakia bakar baten alde, Emakumearen Nazioarteko

Egunean emakumeek eginiko lana omentzea, alegia. Bai atzo bai eta datozen egunetan ospakizun anitzak izango dira gure herrietan.

Anoetako eta Irurako udalek xake erakustaldia antolatu zu-

hilerriak ▶

eskela hartzen dira: 19:00ak arte • 943 65 56 95 • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info



**Maria Oiarzabal Artola**

haurra



Zerura igo zen, bi urterekin.

-Goian Bego-

Zure begietako argiak  
gure bihotzak pizten ditu  
ez da inoiz itzaliko

OTA/TAOko lankide lagunak

TOLOSA, 2005eko martxoaren 9a

**Benito Lertxundi**

Martxoak  
11  
ostirala  
22:30

Sarrerak Leidoran (17:00-19:00)

**Tolosa**  
Leidor aretoa

TOLOSABARRIO METALA



Zizurkilgo Atxulondo kultur ebearan eskulanak ikusgai daude. I.GARCIA



Tolosaldeko 2005 Emakumemartxa Plataformako kideak prentsaurrekoaren une batean. I. GARCIA



Ugaratekoak ez ziren atzean geratu eta bazkari legea egin zuten. N.L.

ere bertako emakumeek euren buruak omendu nahi izan zituzten. Hori dela eta, bazkariak antolatuta zituzten. Abaltzisketako 38 emakume bildu ziren Larraitzen dagoen Nafarri jate-txean. «Duela hamarkada bat hasi ginen bazkari hauekin, urtero lekua aldatzen dugu, baina beti Larraitzen», azaldu zuten han bildutakoek. Ameketako Ugarte auzokoek ere elkartean egin zuten bazkaria. «Gaurkoan gizonek debekatu ta dute sarrera, lan egiteko ez bada», agertu zuen Nekane Goikoetxea bazkariako ardura-dunak. Elkartean 22 eta 88 urte bitarteko 25 lagun bildu ziren

eta jendeak urtero usadio bilakatu den bazkari honi «oso ondo erantzuten dio».

Alegian berriz, Txaro Beobidek, Katxalin bular minbiziaren kaltetutako emakumeen elkarteko zuzendariak, hitzaldi eskaini zuen Kultur Etxean, Udaleko ongizate batzordaren laguntzarekin. 20 lagun inguru hurbildu ziren haraino. Beobidek, besteak beste, minbizi izateko arriskuak, bularrak nola miatu eta osasunerako hezkuntz-egitarau baten gainean aritu zen. «Gure eguneroko ohiturek garrantzia handia dute bularreko minbiziarekin», azaldu zuen Txaro Beobidek.

## Mundu Martxa abian da

Atzo Brasilen hasi zen emakumearen aldeko Mundu Martxarekin egin dute bat Tolosaldean sortutako plataformako kideek

IMANOL GARCIA

«Milaka arrazoi dauzkagu mobilizatzeko: pobrezia, biolentzia, prekarietatea, ikusezintasuna, diskriminazioak... Milaka arrazoi dauzkagu bat egiteko: Euskal Herrian edo munduko edozein lekutan kapitalismo neoliberal eta zapalkuntza patriarkalpean bizi den emakume oro, arrazoi nahiko da 2000 urtean hasi genuen Martxarekin jarraitzeko, ezin baitugu injustizia bat gehiago ere onartu». Aldarrikapen horrekin hasi zuten herenegun egindako prentsaurrekoa Tolosaldeko 2005 Emakumemartxa Plataformako kideek.

2005 arrazoi martxan jartzeko lelopean ezagutarazi zuten Brasilen atzo hasi eta mundu osoa zeharkatuko duen Emakumeen Mundu Martxa. Maiatzaren 24tik 27ra izango da martxa hau Euskal Herrian.

### ORAIN ARTEKO ATXIKIMENDUAK ▶

**Ainhoa Artozabala.** Txirrindulari ohi eta entrenatzailea.  
**Pepi Gorostidi.** Etxerat.  
**Maidier Mendizabal.** Pilotaria.  
**Jone Otxoa-Aizpurua.** Abeslaria.  
**Txitxi Orbegozo.** Margolaria.  
**Maixa Lizarribar.** Kantaria.  
**Marimi Ugalde.** Politikaria.  
**Olatz Amundarian.** Politikaria.  
**Letizia Aristi.** Asvinenea

elkarteko kidea.  
**Aizpea Goenaga.** Aktorea eta zuzendaria.  
**Ainere Tolosa.** Antzerkilaria.  
**Juani Aristi.** Ebel elkarteko kidea.  
**Pilar Oria.** Ebel elkarteko kidea.  
**Tolosaldeko Bilgune Feminista.**  
**Tolosaldeko Batasuna.**  
**Tolosaldeko Segi.**  
**Tolosaldeko LAB.**  
**Txolarre Irratia.**

Martxa horretan Mundu Karta zabalduko da. Tolosaldean osatzen hasi den plataformak «eskualdeko emakumeekin bildu eta Mundu Karta eztabaidatu eta Euskal Herriko emakumeen oinarrizko eskubideen gutuna egiteko geure ekarpenak egitea» izango du

lanetako bat. Plataformaren lan dinamika «demokratikoa, irekia, anitza eta feminista» izango da eta deialdia egiten dute bere kideek interesa duten emakume eta erakunde guztiei «gurekin batu, parte hartu eta atxikimendua emateko».

HITZA

lagunen  
**txokoa**

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ KORRIKA KULTURALAK ATANO III.ean Martxoak 11 ostirala gaueko 22:30ean antolatutako PILOTA PARTIDUETARAKO sarreren irabazleak:

- IZASKUN DORRONSORO GARZIARENA (BERASTEGI)
- ION ZURIARRAIN EIZAGIRRE (ORENDAIN)
- RICARDO MUÑAGORRI SORARRAIN (TOLOSA)

MA. korrika ni ere bai! **ak**  
Euskal Herria mugakaitzen ORREAGA IRETI

PARTIDUAK:

BERRAONDO  
CHAFEE

TITIN / ELKORO  
XALA / BARRIOLA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

INGURUMENA ▶

# Bere egin ditu Udalak, aho batez, Aalborg-eko hamar konpromisoak

Garapen jasangarriaren aldeko konpromisoak hartu dituen lehendabiziko Udala da Euskal Autonomi Erkidegoan

LEIRE MONTES

Ingurumenarekiko eta hiritarren ongizatea bermatzeko Aalborg-eko garapen jasangarriaren aldeko hamar konpromisoak hartu ditu berriki Tolosako Udalak. Hala, Euskal Autonomi Erkidegoan proposamen horiek bere egin dituen lehendabiziko Udala izan da. Udal informazio batzordeen eta Agenda 21eko Kontseilu Aholkulariaren egindako proposamenen harira, gainera, herriko errealitatera egokitzen diren beste zazpi konpromiso erantsi dizkio.

Aho batez onartu zen sinadura osoko bilkuran. «Tolosak jasangarritasunaren eta ingurumenaren hobekuntzarako egitasmoak abian jartzea» dakar hartutako erabaki horrek. Dagoeneko, egin dute lehen ekintza Mugikortasun Planaren barruan.

Aalborg-eko hamar konpromisoek «udal administrazioek jasangarritasunaren aldeko politikak egiteko duten beharra» azpimarratzen dute. «gizarteko eragile guztien laguntzarekin eta demokrazia parte-hartzailearen bitartez, erabakiak guztien artean hartuz, eta guztionak diren ondasun naturalak egoki erabiliz eta zainduz». Energia berritzagarriaren gorakada, uraren kalitatea hobetzea eta era jasangarriaren kontsumitza, bioaniztasuna bultzatzea, eta nekazaritza eta abelzaintza jasangarria garatzea dira hartutako beste hainbat konpromiso.

Kontsumo eta bizimodu ar-



Herritarrek egindako Mugikortasun Foroa. HITZA

duratsuenaren aldeko jarrera ere jasotzen dute konpromisoek. «Baliabideak era jasangarrian erabiltzea, hau da, zaborra gutxitzea eta birziklapena eta bererabilera bultzatzea, eta produktu organikoak garatzea» dute xede.

Hirigintzako plangintzari eta diseinuari dagokionean, «hiringurunea hobetzea, hondaturiko gunek berreskuratzea eta neurriak gabeko garapena bertan behera uztea» planteatzen ditu, besteak beste, Aalborg-eko Konferentziak.

«Oinezkoen mugikortasuna hiriguneetan hobetzea eta ibilgailuen trafikoa gutxitzea» ere hartutako konpromisoen artean daude. Tokiko ekonomia biziaren eta jasangarriaren garapenarekin osatzen dira, beti ere «enplegu eta enpresa berrien sorrera erraztea eta enpresa egituraren jasangarritasun printzipioak finkatu beharra» oinarri hartuta.

«Gizarte berdintasuna eta justizia sustatzea, eta klima aldaketa moteltzeko kontzientzia areagotzea eta ingurumena babesteko politikak egitea» dira, azkenik, Aalborg-eko

Konpromisoen beste bi puntuak.

## Beste zazpi proposamen

Hartutako hamar konpromisoez gain, beste zazpi proposamen ere hartu ditu bere gain Udalak, udal informazio batzordeak eta Agenda 21eko Kontseilu Aholkulariak hala eskatuta.

«Tolosa seguruagoa eta bizigarriagoa bultzatzea, gizonen zein emakumezkoen arteko benetako berdintasunerako neurriak abian jartzea, udal proiektuetan herritarren parte-hartzea sustatzea, eta eremu urriko hizkuntzen alde, euskararen alde bereziki, lan egitea» dira jasotako hainbat proposamen berri.

Halaber, kulturantzatasuna bultzatzeko konpromisoa ere hartu du Udalak, «honek hiritartasuna aberastu duelako». Ingurumena errespetatzen duen bulego materialaren erabilera bultzatzea, eta tokiko ekonomia biziaren eta jasangarriaren aldeko ekintzak abian jartzeko apustua egitea ere dira konpromiso horien artean.

Era berean, Kiotoko protokolo edukiaren arabera, «era askotariko negutegi efektuko gas isurketak murriztera bideratutako tresnen eta baliabideen garapena dakarten ekimen guztiak, publikoak zein pribatuak, kontuan hartzeko eta bultzatzeko konpromisoa» hartu du Udalak. Eta eztabaida guneetan parte hartzen jarraitzeko asmoa azaldu du.

ANTZERKIA ▶

## Emakumeen inguruko lana, HHIk antolatuta

Helduen Heziketa Iraunkorrek (HHI) ikasleen Elkarteak antolatuta, *¿A donde va esa loca?* emakumeen inguruko antzezlan eskainiko du, bihar, Txirene antzerki taldeak. 18:00etan hasiko da emanaldia, Kultur Etxean.

XAKE ▶

## Tolosa-Ibarra taldeak galdu, Hernanirekin

Ibarra-Tolosa xake taldeak 2,5-1,5 galdu zuen larunbatean Hernanirekin aurka. Gipuzkoako Ligan. R. Etxeberriak, M.M. Barojak eta A. Bustamantek berdindu zuten. Dena den, goiko postuetan jarraitzen du taldeak.

HEZKUNTZA ▶



Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi bertsolariak. HIRUKIDE

## Bertso afaria egin dute Hirukiden

Anjel Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi bertsolariek giro-tuta, Hirukide ikastetxeko gurasoek, aiton-amonek eta irakasleek bertso afaria egin zuten ostiralean. Lagun artean, giro polita eta bertso onak izan ziren: «Peña bere azerikerian primeran ibili bazen ere, Bixentek une batzuetan gaintzea lortu zuen. Etorkezuneko bertsolaria dugu, ikasleen eredu erakargarria», diote ikastetxekoek. Tolosaldeko beste ikastetxe batzuetan bezala, ikasleak bertsotan ari dira. Horretarako, Hirukideko zenbait irakasle prestakuntza jaso dute, eta (giroa zabaltzeko asmotan) prestatu zuten ekitaldia.

MENDIA ▶

## Baigorri-Donibane ibilaldia Alpino Uzturrerekin

Alpino Uzturre mendi elkarlotek Baigorri-Donibane Garazi (Behe Nafarroa) mendi irteera antolatu du igandean. Polita eta erraza da ibilaldia, bost ordu eta erdi inguruko iraupenekoa. Oilarandoi (933 metro) eta Munhoa (1.201m.) mendiak igoko dituzte. Irteera 07:00etan izango da, Gorosabeletik. Izen-ematea elkar-teen (Gudari 5. 943 65 27 89).

HEZKUNTZA ▶

## Informazio bilera baten berri Tolosaldea LHIn

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak informazio bilerara deitu du. *Lan-Esperientziaren Gaitasunaren Egiaztatzea* gaitzat hartuta, bihar izango da, aholkulari batekin, Donostia-ko Easo LHIn (Amara auzoa), 19:30ean. Argibide eta informazio gehiago nahi duenak Tolosaldea LHIn dei dezake (943 65 11 47).

**LA KINKY BEAT**

**martxoaren 12an, 22:30ean**

sarrerak  
aurreiaz: 6 euro  
takilan: 8 euro  
Zenbat Gara lagunak edo  
Hitza harpide karnetagaz:  
4 euro

lea-Artibai  
eta Mutrikuko  
**1. URTEBETETZEA**  
+ 1/4 aurreko kontzer-  
tuko sarrerak balio dute

**ONDARROAN**

Kafe  
AN  
ZOKIA

KONTZERTUAN

KULTURA ▶

# Oroitzapen bilduma, udazkenerako

Benito Lertxundik disko berria aterako du kalera 30 bat kanturen bertsoekin; Leidorren egingo dute grabazioa etzi

IRATXE ETXEBESTE

**O**rain arte zenbatetan jardun duen bertan berak ere ez daki, baina batzuztatzen eskaini ditu kontzertuak Tolosaldean honezkero Benito Lertxundik, eta, zehazki, Tolosako Leidor zinema antzokian eman ditu horietako gehienak. Horregatik esaten du «betidanik» izan duela lotura Tolosarekin, eta hona etortzen den bakoitzean «oso gustura» ekiten diola kantatzeari. Ikus-entzuleek, izan ere, lagundu egiten diote zeregin horretan; bistakoa da taula gainean jendearen berotasuna sentitzeak mesede egiten diola ikuskizuna eskaintzen ari denari.

Badira bi urte eta erdi abeslari oriotarrak *Nere ekialdean* (Elkar, 2002), bere azken diskoa argitara eman zuela, eta udazkenerako berria kalera-tzekotan dabil. Bere ibilbide guztiko kantu gogoangarrienak bilduko ditu, dirudienez, lan berri horretan. Hori bai, zuzeneko emanaldietatik ateratakoak izango dira grabazioak: Orion, Gernikan eta Tolosan eskainitako kontzertuetatik ateratakoak. Iazko udan grabatu zuten abeslariaren sorte-

rrian eskainitako kontzertua; Gernikan, berriz, duela bi aste eskaini zuen emanaldia Lertxundik, eta Tolosan etzi gauean ariko da: Leidor zinema antzokian, 22:30etik aurrera.

Hainbat eta hainbat urtetan bateko eta besteko frontoi, kiroldegi eta aretoetan jardun eta gero, bere lehen zuzeneko diskoa kaleratuko du Benito Lertxundik aurtan. 2005eko udazkenean. Hain zuzen ere, *Zuzenean* deituko dio itxura guztien arabera lan berriari: bilduma bikoitza izango da, hogeiki kantu baino gehiagoz osatutakoa eta liburu zabal eta esanguratsu batekin aurkeztua. Dokumentu handi bat, nolabait esatearren.

*Nere ekialdean* lanekoak izango dira etziko kontzertuan eskainiko dituen kantuetako asko, eta, era berean, Euskal Herriko musikari eta kantari handienetakoa egin duten beste asko ere interpretatuko ditu. *Baldorba, Bizkaia maite, Zenbat gara eta Nere herriko neskatxa maite* bezalako kantuek ezin baitute huts egin Lertxundiren saioetan. Errepertorioa aski ezaguna izango da ikus-entzuleentzat, beraz. Itoitzi eta itsasoari —Jon Maiak egindako



Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du etzi gauean Leidorren. HITZA

testua, azken hori— idatzitako kantu bana, horietatik dira berrikuntza gisara aurkeztuko dituen bakarrak.

Bada «oso kontzertu berezia» iragarri dute antolatzaileek ostiralerako. Benito Lertxundiren musikariak ere berdin. Batetik, beste behin Tolosan ariko delako, eta, bestetik, bertako kontzertutik egingo duelako, neurri handi batean, bere zuzeneko disko bakarra. Benito Lertxundiren kantuak gogoko dituenarentzat haren emanaldietako bakoitza da berezia, dudarik gabe. Baina oraingoan, abeslari oriotarraren kanturik ezagunenak bertso berezietan entzuteko aukera izango dute horiek guztiek. Bereziki prestatu dituztelako Lertxundik eta bere taldekideek zuzeneko kantuak bakoitza. Kontu handiarekin.

«Ez dauka zerikusirik estudio kolanak zuzeneko graba-

zioarekin. Prestaketa berezia eskatzen du zuzeneko disko batek, eta asko zaindu dugu hori», esan dio HIRZARI Juantxo Zeberio musikari tolosarrak. Pianoarekin eta sintetizadoreekin laguntzen ditu berak Lertxundiren emanaldiak. Zuzenekoan ez daude «makillaje lanak» egin ahal dituzten baliabideak, eta, hortaz, «ezin dira estudioan egin litezkeen akatsak onartu».

Lan handiagoa egin behar izan dute azken bi hilabeteetan horrexegatik. Ordainetan, baina, «hunkigarriagoa» da ikus-entzuleek emango dietena. Zuzeneko grabaketa «oso berezia» baita, hala jotzen duenarentzat nola saioa ikus-entzuten duenarentzat. Hala nahi zuten Benito Lertxundik, eta halaxe egingo du: zuzeneko emanaldia, era landuan, disko batean islatu. Oroitzapen bilduma berria, udazkenerako.

## XEHETASUNAK ▶

### 'ZUZENEAN'

**Kontzertua.** Ostiralean, hilak 11, Leidor zinema antzokian eskainiko du Benito Lertxundik abeslari oriotarrak, 22:30ean hasita. Eszenatikian beti lagun dituen musikariak ere ariko dira: Juantxo Zeberio tolosarra, Fernando Ederra, Pello Ramirez, Kubo Otxoa de Eribe, Jose Mari Irastorza, Gurutz Bikuña, Olatz Zugasti, Blas Fernandez, Ander Erzilla eta Angel Unzu.

**Grabazioa.** Zuzeneko diskoa ari da prestatzen udazkenean ateratzeko. Etziko emanaldia horretarako baliatuko du. Gernikan eta Orion grabatu ditu gainerako kontzertuak.

**Kantuak.** Hogeita hamarretik gora aukeratu ditu Lertxundik guztira: asko bere azken diskoak dira, eta baita *klasikoak* ere: besteak beste, bere ibilbide guztiko kantu gogoangarrienak bilduko ditu *Benito Lertxundik zuzenean* diskorako.

### SARRERAK

**Leidorren.** Benito Lertxundik etzi gauean eskainiko duen kontzerturako sarrerak Leidor antzokian dira salgai. Edozein egunetan eskura daitezke, baina arratsaldez bakarrik: 17:00etatik 19:00etara.

Euskal Herria euskalduntzan

ni ere bai!

MARTXOAREN  
10etik 20ra  
ORREAGA-BILBO 2005

korrika badator

aek

IBARRA ▶ KIROLA

# Garigool peñaren aurkezpena egin dute

60 lagunek osatuko dute peña berria; aurkezpenean Realeko kideak, zuzendaritza, familia eta lagunak izan ziren



Ibarrako plazan egin zuten aurkezpena astelehenean. ASIER ETXANIZ

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun egin zuten Ibarran Garigool peñaren aurkezpena, hau da, Gari Uranga Realeko jokalaririk ibartarraren peña izango denaren aurkezpena.

Ibarrako plazan bildu ziren Urangarekin batera Aranburu, Gabilondo, Labaka eta Jauregi taldekideak, zuzendaritzaren ordezkariak, lagunak, familia eta peñako 60 bat kide.

Ibartarrari aureskua eskaini zion bere anaiaren neskalagunak eta anaiak, berriz, txalaparta jotzeari ekin zion. Zuzendaritzak, bestalde, peña

berriak sortzen direnean egin ohi den bezala, Garigool peñari oroigarria eman zion.

Plazan egindako aurkezpena amaituta Sendi Ekintza tabernan bildu ziren aurkezpenen elkartu ziren guztiak, han *lunch*-a baitzuten zain denek.

Ospakizuna behar bezala amaitzeko, Isastegi sagardotegira joan ziren; lagunarteko giro ezin hobean goizalderarte luzatu zen asteleheneko festa.

Ligari begira eta peñen funtzioa jokalaria eta taldea animatzea denez, igande honetan Realak Numanciaren aurka jokatuko du Anoetan, eta han izango dira Garigool peña osatzen duten 60 inguru lagunak. Peña berriak igande honetan erakutsi beharko du zaletuen artean zaleenak direla, eta noski, ibartarrarentzat animo oihuak entzunarazi beharko dituzte. Hain zuzen ere, aurkezpenean bezala, berriro ere sagardotegian bilduko dira kideak, bapo jan eta gero arratsaldean Anoetako hitzordu garrantzitsura joateko.

IBARRA ▶

## Emaitza onak utzi ditu aerobik maratoiak

I. TERRADILLOS

Eguraldia kontra bazen ere, oso arrakastatsua izan zen aurtengo Aerobik Elkartasun Maratoia, horrela adierazi dute antolatzaileek.

Naia Yurrita izan zen txapelduna, Imanol Simon bigarrena eta Larraitz Agirre hirugarrena; Ibarrako lehena Aitziber Arreseigor izan zen.

Aipatzekoa da maratoia ikustera joan zirenen kopurua, txalo eta oihu parte-hartzaileak animatu baitzituzten.

Bestalde, bildutako 1.000 euroak Ibarrako misio taldearen proiektuak laguntzeko erabiliko da.

Laguntza eskaini duten guztiak eskertu nahi izan dituzte aurtengo Aerobik Maratoiko antolatzaileek.

GARI URANGA ▶ REALEKO JOKALARIA

## «60 pertsonen osaturiko nire izena daraman peña sortzea harro egoteko modukoa da»

Pozik dago Gari Uranga Realeko jokalaririk ibartarra, sortu berri den bere aldeko Garigool peñagatik eta aurtengo denboraldian lortu duenagatik.

**Zure peña duzu jada, zer sentitzen da?**

Poz handia. Herriko plazan izan zen, familia eta lagunak han ziren eta ilusioa handia egiten du. 60 pertsonen osaturiko peña nire izenarekin sortzea harro egoteko modukoa da.

**Pasa den igandean zure lehendabiziko gola sartu zuen Realean.**

Pena izan zen galdu egin gendelako partida eta ez zen hainbesteko poza izan, baina garrantzitsua izan zen.



I. TERRADILLOS

**Nihat-en postua betetzeko ardura duzu orain, lan zaila ezta?**

Bai, berarekin konparatzen naute, eta presio pixka batekin jolasten dut. Aurrelari hobereenen artean dago bera eta jendeak ez dit berari eskatzen zaiona eskatu behar.

**Zure bizitza asko aldatu al da denbora gutxian?**

Askok aldatzen da. Orain etxetik jaistean jende guztiak ezagutzen zaitu. Batzuk gustura egoten dira famarekin, baina nik nahiko gaizki eramaten dut. Jendea oso ondo portatu arren, askotan agobiatu ere egiten naiz eta eskertuko nuke jendeak ez ezagutzea.

ALKIZA ▶

## Ipuin kontaketa saioa bihar liburutegian

Maite Frankoren eskutik ipuin kontaketa saioa izango da bihar 18:00etan Alkizako liburutegian.

OREXA ▶

## Tutorearen bisita izango da bihar KZgunean

Orexako KZguneak bihar izango du tutorearen bisita 16:00etatik 20:00etara. *Presatu zure platerak* mintegia eskainiko dute eta parte hartzeko 943 65 37 20 zenbakira deitu beharko da.

iragarki laburrak ▶



**Andoain.** 75m<sup>2</sup>-ko etxebizitza kanpoaldera, igogailua, eguzkitsua.

**Anoeta.** 75 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berritua. Terraza kanpoaldera, oso eguzkitsua.

**Anoeta.** Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, terraza eta garajea aukeran.

**Belauntza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabilioia salgai; oso argitsua eta garabiarekin.

**Belauntza.** 225 m<sup>2</sup>-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Argitsua.

Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

**Donostia.** 104 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza Colon pasealekuan salgai. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berritua.

**Donostia.** Duplex zoragarria. 70 m<sup>2</sup>, berritua. Ikuspegi ederra Gros hondartzara.

**Gaintza (Nafarroa).** Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria.

**Ibarra.** 95 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

**Ikuspegi ederra.**

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabilioia eta 2.500

m<sup>2</sup>-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioiak salgai, 320, 400, 625 eta 922 m<sup>2</sup>-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

**Segura.** Berritutako etxebizitza, 2 edo hiru gelakoak eta lursailarekin.

**Tolosa.** Agintari kalean 75 m<sup>2</sup>-ko eraikuntza berriko etxea salgai.

**Igogailua eta trastelekuak.**

**Tolosa.** Santa Klara kalean 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza berritua. Atzealdean baratz propioa.

**Tolosa.** Gernikako Arbola. 155 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, kanpoaldera, berrituzko.

**Tolosa.** Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m<sup>2</sup>-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua.

**Berrituzko premia.**

**Tolosa.** Lokal komertzialak, salmantan edota alokairuan (Gorosabel, lurre, Kale Nagusia, Larramendi...).

**Villabona.** Arroa kalean etxebizitza lehen solairuan. Igogailua, hiru ikuspegi, berrituzko.

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Sendabelarrekin osatuz

Sendabelarrei buruzko ikastaroa egiten ari dira Laura Gurbindorekin; landareen sendatzeko ezaugarriak eta erremedioak egiten ikasiko dute



Eskola teorikoak osatzeko, nonahi aurki daitezkeen sendabelarren bila ateraldia egin zuten. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Lehenengo ostiralean hastekoa bazen ere, atzo hasi zen sendabelarrei buruzko ikastaroa. Amazabal Institutuko jangelan eta hantxe izan zen Hirza, zer eta nola ikasten zuten ikusten.

Laura Gurbindo dute irakasle. Naturopata da bera, fitoterapiari bereziz. 20 urte daratza sendabelarrei buruzko ikastaroak emanez, bai bere kasa eta baita elkarte eta udal-ekin elkarlanean ere, Hego Euskal Herri guztian barrena.

Berak adierazi zigunez, horrelako ikastaroetan interesgarriena eta ikasleak ikasi nahi izaten duena, «egunerokotasunean baliagarri izan dakizkiokeen oinarriko ideia eta pres-taketak» dira, horrela bada, bere saioek teoriarako aldeaz gain, praktikoa ere izanen omen dute, eta ateraldiak ere egingen omen dituzte, «landareak biltzen ikastea» ere beharrezkoa delako, zioenez.

Esan eta egin. Lehendabizikoa aurkezpenak egin eta berehalakoan atera ziren egunkari-orriak besapean zituztela. Han-



Sendabelarrak bilduz. J. A.

txe ondoko estarta bateko ezpandan, landareak nola egoten diren ikusi zuten —azken elurteak direla eta, atzera samar daude oraindik ere— eta baten batzuk identifikatu eta bildu

ere egin zituzten, gerora gelara joandakoan, sendabelar osoaren eta bere zati bakoitzaren ezaugarri medizinalak, erabilpena, dosiak, prestatzeko modu desberdinak, lehertzeko teknikak, kontserbazioa... eta beste mila ikasi beharrekoen berri izanen zutelarik: «Honako honi 'Venusen zilbor' esaten zaio. Ukenduak egiteko oso ona da, batez ere zaurietarako eta. Berehola ere, gaineko azala kendu eta horrekin igurtzi daiteke. Oso haragitsua da, ur askokoa, horrela egunen batean mendian urik gabe aurkituz gero, baliotsua da oso», zioen irakasleak esate baterako; Eta ikasleak begiak erne, eta adi, ale bat orri artean jaso.

Zioenez, «Natura esnatzen denean», aukera gehiago izanen omen dute, eta ukenduak, olioak, infusioak, txanpuak, sa-beak, estraktoak... egiten ere ikasiko omen dute.

Hamesei ikasle dira guztira, gehienak emakumezkoak. Amazabal ikastetxeko hainbat gurasoren ekimenez abiatutako ideia izan da eta EHNK diruz lagundutakoa. Atzo hasita, 32 orduko ikastaroa egin behar dute, launa orduko saioetan banatuta, ostiraletan. Sendatzeko zerbaiten beharrean aurkitzen bagara, badakigu zeinengana jo aurretzean, beti ere ikastaroa bukatzen dutenean, noski.

LEITZA ▶ EUSKARA

## 'Korrika Ttikia' bihar egingen dute Erletan

Euskararen aldeko pesta, arratsaldeaz

J. ASTIBIA

Bihar arratsaldean Korrika pesta izanen dute Erleta eskolan, 15:30etik aurrera: Korrika Ttikia.

Leizatik, larunbatetik igandera goizaldean igaroko da Korrika 14a, baina Erleta eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek ez dute ordurarte itxiteko asmorik. Euskal Herri osoan barrena, bi urtetik behin ospatzen den euskararen aldeko festa honetan beren ahalegina

eginen dute hauek ere eta, *Ni ere bai!* lema beraien egin.

Horrela, astean zehar, pres-taketa lanetan aritu dira ikasle zein irakasleak ere. Eskulane-tako saioetan, petoak egiten aritu dira: moztu, koloreztatu...; eta Korrika 14ko kantua ere ikasi eta entseiatu dute.

Korrika larunbatean eta gauetz irtsiko da herrira, ondorioz festa asteregunez egitearren ere, bihar ibiliko dira laisterka herrian barrengo ibilbidean zehar eskolakoak: Erleta,



Erletan biharko prestaketa lanetan ari dira buru belarri. J. ASTIBIA

Ateka Beltza, Lopenea, Age-rrera, eta Erletara itzuliz.

Dena prest izanik, bakoitzak bere petoa soinean duela, hor-txe ibiliko dira guztiak ere, aurtengo Korrikako kanta kantari. Festa, ordea, ez dute horrela

bukatuko. Izan ere, zirkuitua egin ondoren, arratsaldeko izanen dute zain eskolan bertan. Denok Bat guraso elkartaren eskutik, beraiek prestatu-tako otartekoak eta edaria banatuko baitituzte.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653 212  
**Berastegi-Elduain.** 683 361  
**Bidegoian.** Medikua: 681 134  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 653 329  
**Irura.** Osasun zentroa: 690 720  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia 7 (Tolosa). 943 670 648  
**Larraia.** Elbarren 65 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publici@tolosaldeko-hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
villabona-aizt@tolosaldeko-hitza.info

**Anoetaidea.** 687 41 00 22  
anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzaldea.** 687 41 01 18.  
leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

IRAGARKI LABURRAK ▶

LANA

Zute ilepainezia.

Esperientzia handia duen neska edo mutila behar da. Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 18:00etara; larunbatetan. 09:00etatik 14:00etara. Telefono zenbakia: 943 671 934.

Zerbitzaria eta sukaldaria.

Tolosan zerbitzari bat eta sukaldari bat behar dira asteburuetarako.  
Deitu 635 70 05 59-ra.  
**Igeltseritzako ofiziala.** Mutil bat behar da, 2. mailako igeltseritzako ofiziala.  
Deitu 615 74 86 61-era.

SALGAI

**Autoa.** Opel Astra 1.7 Dieselak. Luzea, 3 ate. 210.000 kilometro. 1.500 euro.  
Deitu 616 81 08 28-ra

**KEY-LAN**  
Sarraigintza

Nafarroa etorb, 13 behe - TOLOSA  
Mug.: 670 41 79 22  
Tel./Faxa: 943 65 03 13

